



**LOOKING INTO THE MIRROR, THE BLACK WOMAN ASKED,  
"MIRROR, MIRROR ON THE WALL, WHO'S THE FINEST OF THEM ALL?"  
THE MIRROR SAYS, "SNOW WHITE, YOU BLACK BITCH,  
AND DON'T YOU FORGET IT!!!"**

# Spivak v-z idazten da

Bilboko Arte Ederreko Museoan *Kiss Kiss Bang Bang*, *45 años de arte y feminismo* erakusketa izan da, Xabier Arakistain komisario zuela. Espainiar estatuan egin diren lehen nazioarteko erakusketa feminista kolektiboen artean dago, eta jarraitu egiten du laurogeita hamarrekoko hamarkadaren hasieran, eskala apalago batean, beste erakusketa proiektu batzuek egindako lan aitzindaria, hala nola *100x100: diez artistas andaluzas*, 1993an Sevillako Arte Garaikideko Museoan **Mar Villaespesa** komisario zela. Hamarkada honetan Estatu Batuetako eta Europako artista feministen zenbait banakako erakusketa egin dira, baina haietako gehieni faltatu izan zaie beharrezko kontestualizazioa feminismoan, arte mugimendu politiko kolektiboa den aldetik, eta horrek gutxitu egin du arte feministaren garrantzia diskurtso-sortzailea den aldetik, eta ia ez du balio izan gure herrialdean artista feministek egindako lana ikusgai egiteko, ezta tokiko testuinguruak eta lan-sareak, jakite/ahalmen produktiboak sustatzeko ere.

Erakusketak eskaintzen du «1965 eta 2007 artean zenbait herrialdeetako berrogeita lau artista eta kolektibok gauzatutako arte feministaren hirurogeita bederati lan enblematikotik egindako ibilbide bat, eta feminismoaren bost gai gakoren inguruan egituratu da: 1- Emakumeen eskubide zibil eta politikoen aldeko borroka. 2- Sexuaren, generoaren eta sexualitatearen kultur eraikuntza eta estereotipo sexisten salaketa. 3- Emakumeen gorputzaren askapenaren aldeko borroka. 4- Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketa. 5- Emakumeak ikusgai egin eta barne sartzeko saioak, historiaren eta kulturaren parte aktiboa diren aldetik».

Gainera, bost bideo aurkeztu dira, atal horietarako sarrera gisa, zehazki erakusketarako

eginak eta ekotziak. Auzi serioa eta politikoa da, inolaz ere, kontuan hartzen badugu feministei eta bigarren mailako testuinguruei, eskuarki, arte instituzioek eta kultur eragile jakin batzuek dohainik lan egin dezaten eskatzen dietela, «kausaren alde», hartara historikoki subjektu politikoen izaera ukatu izan zaien taldeentzat ikusgaitasunak dakarren kapital sinbolikoarekin era perbertsoan jokatuta, pertsonak elkarren aurka jarrita eta testuinguruaren jakituria komuna desjabetuta. Beharrezkoa izango litzateke denbora eta diru asko inbertitzea ezagupen horiek eskuratzeko, ikerketa eredu klasikoari jarraituko balitzaio.

Erakusketaren katalogoak (hura amaitu orduko agortua) bi atal dauka: A- Aurkezpenak, **Griselda Pollock** eta **Linda Nochlin** (**Maura Reilly**ekin elkarlanean) artearen teorizatzaile eta historialari klasikoen testuekin, bai **Amelia Valcárcel**, **Lourdes Méndez** eta **María Xosé Agra** irakasleen zenbait saiakera eta komisarioaren beraren testu batekin ere, eta B- Katalogoa, zeinean iruzkindu egiten baita erakusketan dauden artista bakoitzaren lana.

Erakusketaren sarreran beste lan bat topatuko dugu, testu feministen bibliografia bat, ordena kronologikoan antolatua: *continuum* diskurtsibo bat da, hogeigarren mende osoa eta hogeita batgarrenaren hasiera barne hartzen duena.

*KKBB*ren erdia baino gehiago hirurogeiko hamarkadaren erdialdeko eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadako Arte Feministaren Mugimenduan parte hartu zuten artista estatubatuar ospetsuek osatzen dute. Artista haiek, pintura, argazkia, bideoa, collagea, instalazioa eta, batez ere, *performance*aren bitartez diskurtso feminista irauli, txertatu, sortu

eta hedatu egin zuten gizartean nagusi den sexismoari kritika bat eginez.

Nabarmentzekoak dira **Mary Beth Edelsonen** (1935) *Zenbait artista estatubatuar bizi/Azken afaria* lana, 1972koa, zeinean emakumeen eratzea planteatzen baita subjektu politiko gisa baita artean ere, Leonardo da Vinciren lan ezagunaren jabetzearen bitartez, eta **Judy Chicagorena**, artista eta irakasle aitzindaria bera, Miriam Shapiro-rekin batera, ikasketa feministetako programetan. Biek egin zuten ikasleekin batera *The Woman House Project*, 1972an Los Angeleseko etxe batean egindako instalazio eta *performancez* osatutako lan kolektibo bat, gaur egun suntsitua. **Laura Cottingham**-ek lan haietako hainbat salbatu zituen *Not For Sale* bere bideo-saiakeran, musika **Yoko Onok** (1933) lagata, erakusketa berean baitzegoen bera. Erakusketa honetan Judy Chicagok 1971ko *Bandera Gorria* bere lana aurkezten du, emakumezko sexu -organo batzuen lehen planoan, eta esku bat handik tanpax bat ateratzen: ikono komunisten artean nagusia den bandera gorriaren aldaera biribila eta alderdi eta talde marxisten misoginia estrukturalaren kritika. **Carolee Schneemann** (1935) ekintzak dokumentatzen dituzten argazki eta bideoak ere badaude, 1975eko *Barne eskuizkribua*; bertan artistak bere baginatik paper zerrenda bat ateratzen du, eta emakumeek beren sexualitatea eta identitatearen gaineko eskubidea aldarrikatzeaz gain, zalantzan jartzen du arte instituzionalaren sistema, baita hari lotutako zenbait kontzepturena ere, hala nola «egiletza», «orijinaltasuna» eta «genioa». **Martha Rosler**ek *Emaztegaiaren hizkuntza erromantikoa - Bianchi emaztegaia eta Edertasunak ez du oinazea ezagutzen - Gorputz ederra* sortako zazpi foto-muntaia, 1971 eta 1972 artean eginak. Roslerrek bere lanaz **Laura Mulvey**-k *Ikusizko plazera eta zinema narraitiboa* lanean garatzen duen diskurtsoaren paralelo bat egiten du, irudiek mozarroa kentzen diote ikuspenari, esanahiak sortzen dituen botere sistema bat den aldetik, eta artistak deskontestualizatu egiten digu hori agerian uzteko. **Hannah Wilke** (1940-1993), *S.O.S. Starification Object* sortan -1974-1982 artean egindako hamar argazki- artistak moda femeninozko aldizkarietako argazkiak eta

poseak parodiatuta irudikatzen du bere burua; *feminitatea mozarro-festa gisa*, **Joan Rivière** psikoanalistaren testu aitzindariak aipatutakoa, eta bertan txertatzen ditu txiklez egindako bulba itxurako formen eskulturaxoak. **Suzanne Lacy** (1945) eta **Annie Lesbowitzen** 1977ko *maiatzako hiru aste* lana, Lacyk «*performance* areagotuzko egitura» deitu zien ekintzak dokumentatzen dituen instalazioa, Los Angeles hirian gertatutako bortxaketa ugariei erantzuteko egin zutena. Era berean, bi argazkik bortxaketaren inguruan **Ana Mendieta** (1948-1985) artista kubatar-estatubatuarrek 1973an egindako *performance* ezagunak dokumentatzen dituzte. **Nancy Spero** (1926) presente dago paperean tintaz egindako *Female Bomb* lanarekin (1966); artistak 1966tik 1970 bitartean Estatu Batuen Vietnameko eskalada militar gero eta handiagoaren aurrean protestatzeko egindako *War Series* haren parte da; hartan gerraren aurkako engaiamendua eta mugimendu feministarekiko engaiamendua batu egiten ditu. **Faith Ringgold** (1930) *Estatubatuarren inguruko sorta - Bandera odoletan dago* hartako lan batez dago ordezkaturik; bertan artistak estetika pop batez odoletan dagoen iparramerikar bandera bat margotu zuen, eta haren barruan gizon zuri bat, emakume zuri bat eta gizon beltz bat, baina emakume beltza absente dago. Absentzia hori sintonian dago garaiko feminista beltzen testuen bilduma garrantzitsuenarekin, *Emakume guztiak zuriak dira, beltz guztiak gizonak dira, baina gutako batzuk ausartak gara* izenekoa, 1981ean argitaratua.

Erakusketan badira beste zenbait emakume artista oso ospetsuak, zeinen lanak garrantzi handiago hartu baitzuten laurogeiko hamarkadatik aurrera, hala nola **Cindy Sherman** (1954) eta haren *Izenbururik gabe 255 zk.* eta *264 zk.*, tamaina handiko kolorezko bi argazki, 1992ko *Sex Pictures* sortakoa; bi lanotan gogoeta egiten da emakumearen sexualitatearen irudikapenaren inguruan, aldizkari pornografikoetako estereotipoak (*255 zk.*) eta artearen historiari erreferentzia egiten dioten biluzien estereotipoak (*264 zk.*) gogora dakartzaten poseak egiten dituzten panpinak erabilita. Bi lan horietan gogoeta egiten da ikuslearen voyeur paperaren inguruan eta medio fotografikoaren beraren



↑ Nancy Spero. *Female Bomb*, 1966. Barbara Gross Galerie, Munich.

diskurtsoaren inguruan. **Barbara Kruger**, **Mary Kelly**, **Nan Goldin** artista ezagunekin edo **Guerrilla Girls** kolektiboarekin batera, **Carrie Mae Weems** (1953) artista afroamerikarra dago, eta 1986ko *Ispilutxo*, *ispilutxo* lanean Edurnezuriren ipuina dakarkigu gogora emakumeen arteko desberdintasunak, arraza bereizkerian oinarritutako desberdintasun hierarkikoak, erakusteko. **Zoe Leonard** (1961) 1955eko *Pin Up 1 zk.* (**Jennifer Mills** Marilyn Monroerena egiten) lanaz dago ordezkaturat; bertan erakusten da nolako arazoa dakarren edertasunaren eta gorpuz normalitatearen izaera eraikiak. **Cathie Opiek** (1961), 1991 eta 1994 bitartean pertsona transgeneroei egindako argazki sorta baten bidez ikusgaitasun espazioak zabaltzen ditu, identifikaziorako espazioak subjektu politikoa berrientzat, eta adierazten du Beauvoirek zioen legez ez bazara «emakume jaiotzen», gizona ere ez zarela jaiotzen. **Sue Williamsen** (1954) 1990eko *Azkenburuko* lana ere badago, eta **Ulrike Mueller-ek**, New Yorkeko LTR fanzine feminista queeren fundatzaileetako batek artistaren inguruan idatzitako testua irakurtzea gomendatzen dugu.

Artista estatubatuarren ondoren ordezkatuena europarrak dira, batez ere alemandun herrialdeetatik datozenak: **Valie Export** (1940), zeinaren lana ez da inoiz behar bezain aintzatetsia izango, eta **Elke Krystufek** (1970) austriarrak eta Alemaniako **Ulrike Rosenbach** (1943), **Rosemarie Trockel** (1952), **Kiki Smith** (1954), *Bildwechsel-en* arte artxibozko lana, **Ute Meta Bauerek** (1958) aurkeztua **Tine Seissler**, **Sandra Jastenteufel** eta Berlinen 1992az geroztik lanean ari den **Chicks on Speed** taldearekin batera. Azken hauen lan diziplinartekoetan bat egiten dute musikak, *performanceak*, modak eta instalazioek, eta hemen 2007ko *Marra arrasto hedatua* aurkeztu dute. Badaude lan enblematikoak egin dituzten artistak, hala nola 1968an *Jainkoa erditzen* egin zuen jatorri suediarreko **Monica Sjöö** (1938-Bristol, 2005); olio margolan honetan jainkoa erditzen ari den emakume beltz baten gisara agertzen da gorpuztuta. Sjöö ez da rol maskulinoak eta femeninoak hankaz gora jartzen saiatzen, baizik eta zenbait sinesmen eko-feminista, pagano, pazifista eta xamanista erakusten ditu, hirurogeiko

hamarkadatik aurrera Mendebaldeko Europan eta Estatu Batuetan sortutako kontrakulturaren barruko espiritualtasun alternatibo baten parte izan zirenak. Londresen bizi den Lisboako **Paula Rego** (1935) artistak egindako *Abortuaren inguruko* sorta, Portugalen abortatzeko eskubidea legez kontrakoa zela salatzen du. **Orlan** (1947) frantziarrak, *Nonahikotasuna* bideoaren bidez, bere buruari jasanarazitako zazpigarren ebakuntza-*performancea* dokumentatzen du. Eta azkenik, nabarmendu egin behar da **Eulàlia Valldosera** (1963) artista katalanaren eta **Itziar Okariz** (1965) euskal artistaren lana; lehenbizikoaren *Ontziak: amaren gurtzea* (1996) instalazioa dago, eta bigarrenaren *Espazio publiko edo pribatuetan pixa egitea* (2001-2006), artistak espazio publikoetan egindako «ekintzatxo subertsibo» multzo bat dokumentatzen duten bideo sorta.

Testuinguru euro-estatubatuarretik kanpo, feminismoaren izaera unibertsala adierazten duen keinu moduan, **Tracy Moffat** (1960) artista australiarrak, **Gary Hillberg**-ekin batera, Artista bideoa aurkeztzen du, 2000n egina, **VNS Matrix** kolektibo ultrafeministak, australiarrak hauek ere, goeko hamarkadaren hasieran lanean hasiak, gorazarre egiten dio **Donna Harawayri XXI. menderako manifestu ziberfeminista** izeneko lanarekin.

*Zurrunbilotsu* bideoak, iraniar jatorriko **Shirin Neshat** (1957) artista ezagunak 1998an egina, Nigeriako **Fatimah Tugger** (1967) artistaren 2000ko *Fusio sukaldaritz*a lanak eta Guatemalako **Regina José Galindoren** (1974) *Nork ezaba ditzake aztarnak?* bideoak, 2003an egindako *performance* bat dokumentatzen duena, ederki adierazten dute feminismo postkolonialaren egungo bulkada.